

LEITZA URRATSEZ URRATS

Aurten ere, Leitzako Amazabal Institutuko ikasleek iaz martxan jarri zuten proiektuari jarraipena emanen zioten.

Herrian dauden irisgarritasun arazoak direla kausa, ikasleek gela barruan sortu zuten proiektua institutu osora zabaldu da, baita erleta eskolara ere eta denen artean hainbat lan ateratzen ari dira aurrera.

Amazabal institutuaren kasuan, oinezkenezko informazioa biltzen duen diptikoak egiten ari dira lau hizkuntzatan, herrian zehar pasatzen diren autoen kontaketa egin dute, estatistika datuak alegia matematikan, autoen abiadura neurtu dute fisikan eta herriko jendearen parte hartzearekin dokumental bat grabatu dute eta orain muntaketa lanak burutzen ari dira, besteak beste. Erleta eskolan ere burutu dituzte jarduerak, hala nola herrian zehar egin dituzten ibilbideak, alkatearekin bildu dira eskakizunak eginez... eta maiatza bitartean ekintza gehiago burutuko dituzte erleta nahiz amazabaleko ikasleek.

Honetaz gain, **kalejira herrikoa** antolatu zuten martxoaren 28an. Aldarrikapena festa giroan gauzatu zen eta herritar ugari bildu ziren ekintza honekin bat egitera, aldarrikapena ozenagoa izan zedin. Baina kalejiraz gain, bestelako ekintzak ere egin ziren martxoaren 28an:

Goizeko 9:15etan hasita, institutuko ikasle guztiek, erleta eskolako (haur eta lehen hezkuntzako ikastetxea) tailer batzuk antolatu zizkieten. Tailer horiek jolasa bideratzeaz gain, mugikortasunarekin lotura zuten.

Hala nola, itsu gisa ibilbide bat egin behar zuten lehen hezkuntzako ikasleek, kartel eta marrazki errebindikatiboak, txapak 3. dbhko ikasleek asmatutako logoarekin, sokatira baina zailtasunarekin, hau da, esku batez... 10:30etan ikasbidaian doazen 1. batxilergokoek patata tortilak jarri zituzten salgai. Eta 11etan kalejirari ekin genion. Plazara joan eta bertan dantzatu egin genuen ikasleek asmatutako abestiarekin batera: Leitza Mob (ikasleek asmatutako koreografia). Koreografia bukatutakoan berriro ere eskolara bueltatu ginen eta bertan, Amazabal institutuko zenbait ikasleren eskutik kontzertua eskaini ziguten.

Azken finean, **Leitza Urratsez Urrats** proiektua: Leitzako herritarrak, herriko irisgarritasun gabeziez konturatzeko **kontzientziazio kanpaina**. Guztientzako irisgarria den herria lortu nahi delako; denek nahi duten tokira arazorik eta beldurrik gabe iristeko eskubidea dutelako.

Horrez gain, maiatzaren 4an udaletxeko batzar aretoan 11:30etan egindako lan guztien plazaratzea egingo dute ikasleek. Bertara guraso, herritar eta eragile desbedinak gonbidatuko dira.